

**UDALBATZAK 2010EKO ABENDUAREN 23AN EGINIKO OHIKO OSOKO
BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaleko bilkura-aretoan, bi mila hamarreko abenduaren hogeita hiruko 08:30 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- M^a del Mar CARRILLO GASCON
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mikel DURAN GONZALO
- Luis Ignacio ANDRÉS JIMENEZ
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA (Jakinarazten da Galdera-eskaeren puntuan bilkuratik alde egin duela).
- Luis Santiago ANGULO MARTIN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGUELTORENA
- Maite PEÑA LOPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN
- Lucia PERALTA RODRIGUEZ
- M^a Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Bertan dago, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

1. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatearenak (1445 zk.tik 1544 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkarienak (1804 zk.tik 1916 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.

Ondoko ebazpenen berri eman da: Alkatearenak (1445 zk.tik 1544 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkarrienak (1804 zk.tik 1916 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

2. Proposamena: Errenteriako Udaleko Euskara Aholku Kontseiluaren Araudia onartzea.

AURREKARIAK

Errenteriako Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartzeko prozesuari hasiera eman dio.

Plan honek Udaleko Euskararen Aholku Kontseiluaren eraketa jasotzen du.

Aholku hori bideratzeko Udaleko Euskararen Aholku Kontseiluaren Araudia egin da, hain zuzen ere Kontseiluaren funtzionamendua arautuko duena.

Aholkulari juridikoak Errenteriako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautuko duen Araudiari hasiera batez onartzearen aldeko txostena egin du 2010eko azaroaren 25ean.

Euskarako teknikari-koordinatzaileak ere Araudi honi buruzko aldeko txostena egin du 2010eko azaroaren 23an.

Euskara Batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Burgos jaunak (Alkarbide) esan du berak bat egiten duela joaterik izan ez zuen Euskara Batzordeak, aho batez, hartutako erabakiarekin. Gaineratu duenez, Araudia eta Aholku Kontseilua beharrezko baliabideak dira euskara herrian indartu eta zabaltzeko.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du bere taldeko partaideek hasierako onespeneraren alde bozkatuko dutela, besteak beste, euren aburuz Udal honek asko duelako egiteke herritarren esku hartzeari buruz. Ikuspuntu horretatik eskatzen dute elkarte eta pertsoneri euskararen inguruan lana egiten uzteko, hain zuzen beste arlotan bezala, horretarako borondatea dutelako. Euren iritziz, Udalbatzaren erantzukizuna da haiek desilusionatuak ez sentiaraztea eta euskararen inguruan lanean jarduten uztea.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du Errenteriako Udala Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian sartzeko bidea egiten ari dela. Jakingo duzuen bezala -dio-, EBPN Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen plana da eta dagoeneko Autonomia Erkidegoko udal gehienak sartuak daude plan horretan. Euren ustez Errenteriak garaia du plan horretan sartzeko eta, gainerako udalen antzera, euskararen aldeko plan estrategiko egokia egiteko. Plan hau aurrera eramateko garaian Eusko Jaurlaritzatik gomendatzen dute Euskararen Aholku Kontseilua sortzea. Gomendio hori bat dator Errenteriako Udalak daraman bidearekin, izan ere, dagoeneko baitituzte Berdintasunerako kontseilua, Hirigintza kontseilua, etab. Kontseilua sortzeko lehenengo pausoa berori arautuko duen erregelamendua egitea izan da, horretarako Euskara departamentuak zirriborroa egin zuen eta Berdintasunerako kontseiluaren iritzia hartuta, balizko kontseilukideei eman zien aztertzeko eta ekarpenak egin zitzaten. Hori egin ondoren, Euskara batzordeko kide guztiei banatu zitzairen, horiek ere iradokizunak egiteko aukera izan zezaten. Eta guztien ekarpenak bilduta, Batzordeak aho batez onartu zuen. Beraz, esan dezakete erabateko kontsentsua lortu duen erregelamendua dela, eta espero dute gai horretan hain beharrezkoa duten indarraren adierazlea izatea kontsentsu hori.

* Angulo jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du lehenik Euskara batzordean eurek eginiko proposamen gehienak onartu izanak pozten dituela. Horrela, esan behar dute araudi horretan proposatzen diren puntu gehienekin bat datozela. Aholku kontseiluaren filosofiarekin ere bat datoz, herritarrek parte hartzeko tresna egokia dela, baina ez bakarra, iruditzen zaielako. Aldiz, ez daude ados udal gobernuko kidea izateagatik kontseiluan egoteko aukera izatearekin eta beste zinegotziok ez izatearekin, kontseiluaren eztabaiden berri era zuzenean jasotzeko aukera kentzen zaielako eta informaziorik onena, daudarik gabe, zuzena delako. Eta ez dute alferrik esaten, Udala kide den beste erakundeen informazioaz eskarmentu handia izan dutelako azken urteotan baizik.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du eskertzen duela Araudi honek jasoko duen aldeko sostengua. Gaineratu duenez, bera ere bat dator Angulo jaunarekin (Atxiki Gabeko Zinegotziak), eta espero du Kontseiluaren lanak fruitu onak ematea. Era berean, eskertzen ditu Atxiki Gabeko Zinegotziek eginiko ekarpenak, zeren eta, Angulo jaunak esan duen moduan, denak onartuak izan ez badira ere, horien izpiritua onartu delako. Orobat eskertzen du Euskara Departamentuak prozesu osoan eginiko lana, izan ere, kopuru aldetik asko egin duelako, baina batez ere, kalitate aldetik.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du bere taldeak ere esker horiekin bat egiten duela.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

1. **Hasierako onespina ematea** Errenteriako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautuko duen Araudiari.

2. Jendaurreko informaziorako epea eta interesdunen entzunaldia epea gutxienez hogeita hamar egunekoa izango da erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko.

3. Epearen barruan aurkezturiko erreklamazio eta iradokizun guztien ebazpena eta behin betiko onespina Udalbatzari dagokio. Aipatu epean ez balitz erreklamazio edo iradokizunik egingo, ordura arte behin-behinekoa izandako akordioa behin betikotzat hartuko da.

4. Araudia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta indarrean sartuko da argitaratu eta hamabost lanegun igarotakoan.

* Jarraian, Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du, Galdera-eskaerak egiteko puntura pasa aurretik, Lehendakaritza Departamenduko bi gai dituela, izan ere, batzorde hori etenda geratu zenez -Udalbatza honetako gai zerrenda egiteko Bozeramaileen Batzordea egin zenean-, ez zuen irizpenik ematerik izan, eta horregatik, ezin izan zituzten gai zerrendan sartu. Gaineratu duenez, geroago batzordea egin zuten eta eman beharreko irizpenak eman zituen. Horregatik, bi gai horiek Gai Zerrendan sartzea proposatzen du. Horietako bat -dio- TAOren ingurukoa da, eta bestea, berriz, Kutarro aldeko larsail baten ustiapena.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du Alkateak aitatu duen batzorde horretan bertan bere talde politikoak Amiantoari buruz aurkezturiko mozioa diktaminatu zuela. Horregatik eskatzen du, premiazko prozedurari jarraiki, Gai Zerrendan sartzea.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Jarraian, premiazkoa aitortu ostean, aho batez, erabaki dute ondorengo gaia aztertzea:

3. Proposamena: Errenteriako Lau Haizeta aldean Kutarro deituriko udal larreak abereekin aprobetxatzeko alokairu-kontratua esleitu gabe uztea. Kontratu-espeditente berri bat abian jartzeko proposamena.

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2010eko irailaren 17an, erabaki zuen espeditentea abian jartzea "Errenteriako Lau Haizeta aldean Kutarro deituriko udal larreetan abere-ustiapenaren alokairua" kontratatzea prozedura negoziatuaren bidez (hainbat irizpide).

Proposamenak egiteko garaian batek (1) bakarrik egin du, hain zuzen Bittor LIZEAGA LUJAMBIO jaunak. Alabaina, proposamena baztertu egin da, lizitazioa arautu zuten baldintza-agiriekin adierazitako dokumentazioa ez zuelako ekarri.

Ingurumeneko teknikari Iñaki Azkaratek eginiko txostenean adierazi du onarturiko baldintza-agiriekin baliozkoak izaten jarraitzen dutela, tramitazioa prozedura negoziatuaren bidez gauzatu dadin.

Kontratazio eta Ondare Saileko arduradunak txostena egin du.

Lehendakaritza Batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) proposatu du Gobernu Batzarraren esku uztea kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren akordioak hartzeko lanak eta Alkatearen esku uztea kontratuaren sinadura. Gaineratu duenez, Kontratazio eta Ondare Saileko AOTren arabera, gai hau batzordean berak aitatu zuen.

* Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) adierazi du kontu honekin gauza asko aitatu direla, eta orain Alkateak esandakoa beste osagarri bat da. Eurek afera honekin bi alde ikusten dituzte: batetik, kontratazio-prozedura ondo eramandena edo ez. Eta bestetik, prozedura martxan jartzea zein organok erabaki behar zuen. Kontratazio-prozedura aldetik, teknikariak eginiko txostenean argi uzten du prozedura bete dela, eta hori eurek ez dute ezer esateko. Alabaina uste dute kontuan hartu behar dela martxan jartzeko erabakia nori dagokion. Jarraian, gazteleraz, esan du ez daudela proposamena onartzearen alde. Gaineratu duenez, prozedurarekin aurrera jarraitu ahal izateko eta Legearen arabera egiteko organo batek, eta badago, erabaki bat hartu behar zuen. Alabaina, justu denak pentsa zezaketenen aurka, ez da hori erabakia hartu beharko zukeen organoa. Kasu honetan -dio-, beste behin, Gobernu Batzarra Udaltzari usurpatzen ari zaio. Horregatik, justuki, ari dira gai hori eztabaidatzen han, eta han aboratu behar dute gai hori, hots, espediente hori martxan jartzea bidezkoa den edo ez. Horrela, argi eta garbi utzi nahi du ez dela lehenengo aldia gertatzen dena, eta horrek erakusten duela Gobernu Taldeak oposizioarekiko duen jarrera nolakoa den, zeina errefusatzeko baitute. Ondoren, Alkateak planteaturiko azken puntua ildo beretik doala esan du, alegia, Udaltzaren eskumenak uztea, eta horrekin ez daude ados Atxiki Gabeko Zinegotziak. Berak ez daki beste egoera batean bere iritzia diferentea izango ote litzatekeen, baina gaur gaurkoz, ikusirik nolakoa den Gobernu Taldearen jarrera, planteatzen den proposamenaren aurkakoa da. Horregatik, prozedura martxan ipintzea beharrezkoa jotzen badute ere, proposamenaren aurka bozkatuko dute, hain zuzen, ez daudelako ados modu horretako delegazioekin, eta ontzat emango zutelako Gobernu Batzarrak Udaltzari eskumenak usurpatzea.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du sinestezina dela zenbaiti biktimarena egitea zenbat gustatzen zaien; hitz hanpatuak erabili eta errealtatea desegiten dute. Gaineratu duenez, usurpazioz hitz

egitea gauzarik niminoean, berak dakien heinean, ehuneko ehunean teknikoa izan delako, Gobernu Taldeko inork parte hartu ez duenean, erabat neurrigabea iruditzen zaio. Horrela, Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) usurpazioa deitzen duen hori noizbait gertatu dela uste badu, behin bederen, salaketa jar dezan animatzen du. Jarraian, bukaerako aipamen hori kentzeko eskatu du, berak asmatu ez duena, teknikariek proposatua baizik. Hau da, kentzen duela bere proposamena, eta Lehendakaritza Batzordean ikusitakoa bozkatuko dutela. Ondoren, azpimarratu du ohitura txarra dela hitzak itxuraldatzea.

* Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotzia) Alkateari gogorazi dio ez diola beti txosten teknikoei kasu egiten.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 13 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP eta Alkarbide), 6 boto aurka (Atxiki Gabeko Zinegotziak) eta 2 abstentzios (Ezker Batua-Berdeak),

E R A B A K I D U

1.- **Berrestea** Tokiko Gobernu Batzordeak egindakoa, hain zuzen ere, 2010eko irailaren 17an akordio baten bidez deitutako lizitazioaren gainean, "Errenteriako Lau Haizeta aldean, Kutarro deituriko udal larreetan, abere-ustiapenaren alokairua" kontratatzeko, eta, hortaz

2.- Lizitazioa bete gabe aitortzea, izan ere, aurkeztutako proposamena lizitaziotik kanpo geratu delako.

3.- Beste espediente bat abian jartzea prozedura negoziatuaren bidez aipatutako alokairua kontratatzeko,.

4.- Onartzea kontratazio espedientea, lizitazioa arautuko duten baldintza-agiri ekonomiko-Administratibok eta teknikoak barne.

5.- Ahal izanez gero, kontratu hori burutzeko gaitasuna duten gutxienez hiru enpresari eskatzea, **zazpi (7) laneguneko** epean, gonbidapena jasotzen dutenetik kontaktzen hasita, beren proposamenak aurkeztu ditzaten.

Orobat, aho batez presazkoa jo ostean, ondorengo puntua aztertu dute:

**4.- Proposamena: Errenteriako Trafikoa eta Aparkalekuak Antolatzeko (TAO) zerbitzua -bide publikoak gaizki utzitako ibilgailuak jaso, ibilgetu eta gordelekura eramatea barne-
emateko izenpeturiko kontratua beste bati lagatzea.**

2006ko apirilaren 5ean kontratua sinatu zen UTE ERRENTERIArekin, VINCI PARK ESPAÑA, S.A., VINCI PARK SERVICIOS APARCAMIENTOS, S.A. eta VINCI PARK GESTION, S.A.-k osatzen zutena, hain zuzen ere, "Trafikoa eta aparkatzea ordenatzeko zerbitzu publikoa (TAO), Errenterian, jabari publikoan, gaizki aparkatutako ibilgailuak jaso, ibilgetu eta gordelekura eramatea barne" izeneko zerbitzua emateko.

2010eko azaroaren 19an, UTE ERRENTERIAk idazkia aurkeztu zuen. Bertan eskatu zuen aipatutako kontratua VINCI PARK SERVICIOS, S.A.U.-ri emateko, eta, era berean, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera eragina izateko.

Udaltzaingoko teknikari Juan Enrique Bengoetxeak aldeko txostena egin du 2010eko abenduaren 1ean.

Kontratazio eta Ondare Saileko Arduradunak txostena egin du 2010eko abenduaren 7an.

Lehendakaritza Batzordearen proposamena ikusitakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 13 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP eta Alkarbide) 8

abstentzios (Atxiki Gabeko Zinegotziak eta Ezker Batua-Berdeak),

E R A B A K I D U

1.- Baimentzea UTE ERRENTERIArekin (VINCI PARK ESPAÑA, S.A., VINCI PARK SERVICIOS APARCAMIENTOS, S.A. eta VINCI PARK GESTION, S.A.-k osatua) sinaturiko kontratua VINCI PARK SERVICIOS APARCAMIENTOS, S.A.U-ren alde lagatzea, hain zuzen "Trafikoa eta aparkatzea ordenatzeko zerbitzu publikoa (TAO), Errenteriako jabari publikoan gaizki aparkatutako ibilgailuak jaso, ibilgetu eta gordelekura eramatea barne" izeneko zerbitzua emateko, eta, era berean, 2011ko urtarrilaren letik aurrera eragina izatea.

2.- Kontratuaren lagapen-hartzaileari eskatzea 7 eguneko epean behin betiko bermea jar dezan, bere garaian UTE Errenteriak jarri zuena ordezkatzeko, betiere hura jarri zen baldintza eta zenbateko berekin. Hala ere, gaur egun dagoena indarrean mantenduko da berria jartzen ez den bitartean.

Jarraian, aurrez presazkoa jo ostean, ondorengo puntua aztertu dute:

5.- Mozioa, Ezker Batua-Berdeak aurkeztu eta Atxiki Gabeko Zinegotziek izenpeturikoa, herrian ezarrita dagoen amiantoaren inbentarioa egin eta hondakinen kudeaketa egokia egiteko.

Ezker Batua-Berdeak aurkeztu eta Atxiki Gabeko Zinegotziek izenpeturiko mozioa ikusi dute.

Ondoren, mintzatu dira:

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du idatzi bat banatuko duela, zeina mozio

alternatibo bat ez bada ere, mozioaren lehenengo puntua argitzeko edo matizatzeko garrantzitsua iruditzen zaie.

* Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ondoko proposamena irakurri du, Ezker Batuak Amiantoaren inbentarioari buruz aurkezturikoari Euskal Sozialistak zinegotzi-taldeak egiten dioena:

"Mozioaren 1. puntuan, amiantoaren inbentarioa egitea eskatzen denean, gure ustez, eskari hori zabaldu egin behar da, hots, zehaztu egin behar da inbentario hori Hirigintza Sailak eramango duela kontrola edo fitxeroak eginez, bertan jasoko delarik amiantoa duten instalakuntza-zerrenda oro. Instalakuntza horien berri udal langileek, bizilagunek, partikularrek, elkarteek, etab... eman ahal izango dute. Era berean, eraikin edo antzekoren bat jaustea eskatzen denean inbentarioa begiratu da, hain zuzen, egin beharreko lan hori inbentarioan jasota ote dagoen ikusteko, eta hala bada, material mota hauek maneiatzeko eskatzen diren neurriak hartzea exijituko da".

* Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) etenaldia eskatu du, une horretan eginiko proposamena sakonago ikusi nahi dutelako.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), 9:00 zirela, 5 minutuko etenaldia baimendu du.

Batzarra, berriro, 9:05 zirela hasitakoan.

Mintzatu dira:

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du Amiantoa Estatu Espainolean 2002az gero eta Europar Erkidegoan 2005a

ezkero debekatuta dagoela. Debekatua dago erabiltzea, ekoiztea eta saltzea, baina, zoritxarrez, Amiantoaren ondorioak, denek entzun izan dute Musika plazako dokumentalak demostratzen duen bezala, ez dira desagertu, eta epe laburrera ez dira desagertuko ere. Gaineratu duenez, dokumental horretan, besteak beste, ikus liteke herri honetako herritarrak jasaten ari direla garai batean amiantoarekin lan egin –baita ikertzen ibilitakoak ere– izanaren ondorioak. Hori horrela, mozioarekin Udaltzatzak, partikular modura zein erakunde gisa, Amiantoari aurre egingo diola konpromisoa hartzea gustatuko litzaieke. Mozioari dagokionez, berriz, lau puntu ditu: Hirugarrenean eurek legeria bete dadin eskatzen dute, nahiz eta, hasiera batean segurutzat jotzen duten betetzen dela. Laugarrenean eskatzen dute Udaltzaingoak jarraipena egiteko, eta euren aburuz egiten dutela uste dute. Ondorioz, eskatzen dute Udaltzaingoari gogorazteko euren eginkizunen artean dagoela amiantoa kentzeko lanak edo berorren hondakinak kontrolarik gabeko hondakindegietara botatzeko isilpeko lanak sumatzea. Euren aburuz mozioaren muina lehenengo eta bigarren puntuan dago. Lehenengo puntuan eskatzen dutena ez da orain gertaturiko zerbait. Izan ere, batzordeburuak pasa den astelehenean gogorazi zuen gisan, talde sozialistak 2002an Euskal Legebiltzarrean ia-ia zentzu berdineko mozio bat aurkeztu zuen. Horrela, udal askok hura ez bete izana, kezkatzeko moduko kontua da, edo gutxienez pizgarri bat 2002. urtean onartu zena Errenteriako Udalak aurrera eramateko. Bigarren puntuari dagokionez, berriz, bere taldea harriturik dago, besteak beste, jakin zuelako Udal honekin lotura izan duten edo duten pertsonak REDA delakoan inskribatzeko gauza bezain xumea egiteko, Langileria Batzordea eta Udalaren arteko eztabaida-iturri zela. Horregatik, espero eta desio du mozio hori onartzen den une beretik ulertezin hori desagertzea. Amaitzeko esan du ez duela inolako arazorik talde sozialistak proposaturiko ekarpena bere egiteko. Haatik eskatzen die, ekarpenak egiten dituztenean, denbora pittin bat gehixeagorekin egiteko, izan ere, berak bilkura-aretoan sartu baino bi minutu lehenago jakin baitu horien berri. Bere

iritziz, bezperan bana zezaketen, eta gisa horretan, ez zuten irakurtzen denborarik galduko.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du bere taldearen proposamena, Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) haren berri izan baino ordu erdi bat lehenago jaio dela. Horregatik, zaila zuten bezperan banatzea. Edonola ere, uste du garrantzitsua esku-hartzea eta idatziaren izpiritua dela. Bere irudiko metodoaz, prozeduraz edo protokoloaz jabetzea arazoaren larritasuna onartzea da. Jarraian esan du eskertzen duela, gutxienez "azaletik" bederen, protokoloek agintzen dutenaren arabera jarduten ari direla esatea, eta espero du mozio honen bidez aurrera egitea material hauen -zeinaren izaera nolakoa den denek baitakite- kontrolean eta detekzioan, eta aldi berean, kentze-lanak behar bezala egitea.

* Burgos jaunak (Alkarbide) esan du bere egiten dituela Ezker Batua-Berdeak-eko bozeramaileak eginiko gogoetak. Gaineratu duenez, mozioaren alde bozkatuko du eta sostengu osoa adierazten die Errenteriako herritar guztiei, zeinak jakin gabe -dokumentalaren ostean izandako elkarrizketan eurek berek errekonozitzen zuten bezala- amiantoa bezalako material arriskutsuarekin lanean ari baitira. Ondoren, amiantoarekin lanean ari zen beste pertsona bat hil dela, esan du. Ez daki dokumentalean ateratako bat zen, baina bai bertan aitaturiko bat zela, gaineratu du. Amaitzeko adierazi du mozia osotasunean sostengatzen duela, baita alderdi sozialistak eginiko ekarpena ere.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du, batzordean iragarri zuten bezala, talde sozialistak eginiko ekarpena sartuta, mozioaren aldeko bozka emango dutela. Batzordean aurreratu zuten amiantoa desagerrarazteko urratsak ematea garrantzitsua jotzen zutela, eta kontu hau ez aurrera ez atzera geratuko zela bazirudien ere, pozten dira kontsentsu zabal batekin aurrera aterako delako. Gainera, sartu ez bada ere, nahiko

luke Udalaren agendan azaltzea, amiantoaren aferak berorrekin zerikusia duten departamentu guztietan presente egon behar duela.

* Queralt jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du batzordean esandakoa berresten dutela. Eta Alkateak azken puntuari buruz emaniko argibidea ondo deritzaie, baina zehaztapenetan sartzen badira, eurek ere konkrezioaren bat egingo lukete. Alegia, eraikin bat bota behar denean – inbentarioa ez delako egun batetik bestera egingo–, igual berori jaso gabe egongo da, eta orduan, bota baino lehen ikusi beharko lukete inbentarioan dagoen edo ez.

* Merino alkate jaunari (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) kezka hori logikoa iruditzen zaio, baina hori jada egiten dela, esan du. Gaur gaurkoz inbentario hori ez izateak ez du esan nahi eraikin bat jausi behar denean egiten ez denik. Edonola ere, jausteak ez dira egunero egiten, eta Hirigintza-sailari egiten zaion ohar honekin, uste du, erne egongo direla jauste bat egin behar denean, nahiz eta berori inbentarioan jaso gabea egon. Gaur egun –dio–, jarduketa handienak kanalizatze-lanak dira, eta inbentario bat ez izateak ez du esan nahi protokoloa jarraitu ez denik. Eta, berriro dio, kezka hori zuzena iruditzen zaiola, baina izpirituan jasota dagoela uste du. Eta, ziur dago, ordura arte Udaltzaingoak inbentario horrenik izan ez badu ere, araudi bat dagoelako, bai bazituela jarraibide zehatzak. Eta horiei jarraitu diete, Hiri-mantentze sailak egin duen moduan. Azken finean, ez direla hutsetik abiatzen esan nahi du. Izan ere, berak baitaki, duela urte dezente, herritik kanpoko enpresa adituak material hori kentzen aritu direla, esaterako, Lartzabal futbol zelaiko eraikin zaharrean.

* Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du dagoeneko inork ez duela eztabaidatuko amiantoa urteetan min handia eragin duen produktoa dela, baina ez da material erradiaktiboa, nabarmendu du. Gaineratu duenez,

Espainiako araudia dela medio, amiantoa ekoiztea 2001ean utzi zuten, eta Europako Erkidegoan, berriz, 2005eko zuzentarau baten bidez. Hala ere, amiantoa hor dago eta gure herrietan barrena amianto asko dago zabaldu. Edonola ere, ez bada ukitzen, ez da produkto erradiaktiboa, eta beraz, ez du kalterik eragiten, kaltea manipulatu denean eragiten du, nabarmendu du. Ondoren, informazioa ematen denean, jendearengan alarma ez sortzen saiatu beharko luketeela, esan du. Izan ere, kontuan hartu behar baita edaten duten uraren parte bat oraindik zuzen-zementuzko odietan etortzen dela. Hori horrela -dio-, adituen arabera, gizakiak berak emeki-emeki jasotzen duen metal kopuru bat darama berekin, batez ere aberatsek, urteetan zehar, jasotakoa. Zentzu horretan, duela egun batzuk komunikabideek aitatu zuten arrainek eta hortz-aginen inplanteek duten merkurioa dela eta, produkto zenbaiten kontsumoa mugatuko beharko litzakeela. Bestalde, mozio hori Lehendakaritza batzordera eramane zuten, eta, bere aburuz, askozaz hobea izango litzateke Hirigintza batzordera edo Ingurumen batzordera eramane izan bazuten, hain zuzen, bertako teknikarien aholkuak direla medio, informazio gehiago izateko aukera eta luze gabe inbentarioa egiteko posibilitate gehiago izango zutelako. Berak uste du sekulan ez dutela jakingo zehatz-mehatz non

izan daitezkeen amiantoa duten produktoak. Horrez gain, lehen aitatu duen moduan, duela zortzi urte Eusko Jaurlaritzan amiantoari buruzko mozioa ikusi zuten, zeinak, ez legezko proposamena izateaz aparte, ibilbide laburra egin baitzuen, eta bertan, Eusko Jaurlaritzari ildo horretako neurriak hartzeko eskatzen zen. Zehatz-mehatz zera zioen: Autonomia Erkidegoan amiantoa zeukaten instalakuntzen inbentarioa egiteko udalekin kolaboratuz. Batere ibilbiderik egin ez zuen bigarren puntu garrantzitsu bat zera izan zen: instalazio horiei buruz alde aurreko jarduketa-irizpideak ezarri behar zirela. Eusko Jaurlaritzak -berak dakien heinean- ez zuen ekimen bakar bat ere hartu, eta ez legezko proposamena, besterik gabe, hor geratu zen. Gainera, Ezker Batuak, batzordean esan zuen moduan, Eusko Jaurlaritzan abenduaren

erdi aldera zentzu bereko beste ez legezko proposamen bat egin zuen. Hortaz, uste du ona izango litzakeela, gaur onartzen dutenaren arabera, bere garaian Eusko Legebiltzarrak zer onartzen duenaren zain egotea, eta hark Gobernuari zer eska diezaiokeen begira egotea. Gaineratu duenez, 2005eko Europar zuzentaraua dela eta, Espainiako Legebiltzarrak 396/06 Errege Dekretua onartu zuen, non produktoarekin lanean jarduterakoan nola jardun behar den determinatzen baita. Geroztik, Autonomia Erkidegoko udal zenbaitek ordenantza egin du, eta, Hernanin, esaterako, Dekretuko aginduak berak ordenantzan sartu zituzten. Alabaina, harritzekoa badirudi ere, lehen hitz egiten zutenean RERAz (Amianto-arriskua duten enpresen erregistroa) hitz egiten zuten. 2008ko irailean onartua izan zen ordenantzan, RERAn erregistraturiko enpresen eranskin bat dago, baina Hernaniko Udala ez zegoen erregistro horretan sartuta, gaineratu du. Berak ez daki hori amiantoa duten produkto bakar bat ere ez zeukalako izan zen edo zergatik. Izan ere, eranskinean azaltzen diren 113 udaletatik 3 baino ez baitzeuden RERAn erregistratuak 2009ko irailean, hain zuzen Errearteria, Arrasate eta Basauri. Hau da, Osasungintzak gauza zenbait egin ditu, baina, badirudi beste batzuk ez. Ziur aski -dio- Errearteria izango zen 2005ean RERAn inskribatuta zegoen udal bakanetako bat, gaineratu du. Amaitzeko, Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan duen moduan, Udaltzaingoak jada jarduten du kontrolarik gabeko eta ezkutuko hondakindegietan. Bere iritziz, mozioaren laugarren puntuaren bidez soilik gogoratu behar zaio, amiantoa izan dezaketen materialak botata ikusten dituztenean arreta berezia jartzeko. "Izan dezaketen" dio, erabiltzen diren material guztien aldagaiak determinatzeko Udaltzaingoan ez dagoelako inor aditurik, ziur aski, ezta Udaletxe osoan ere, esan du. Azkenik, talde sozialistak mozioaren alde bozkatuko duela, esan du.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eginiko aldaketa-proposamena -gaiaren azalpen-zatian jasoa- sartu ondoren.

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

- **Onartzea** Ezker Batua-Berdeak-ek aurkeztu eta Atxiki Gabeko Zinegotziek izenpeturiko ondorengo mozioa:

"Errenteriako Udaleko EZKER BATUA-BERDEAK taldeak, udal instalazioetan, industria pabiloietan, ganadutegietan eta udalerriko beste hainbat eraikinetan instalatutako amiantoaren inbentarioa egiteko beharraren inguruko ondorengo mozioa aurkezten du, pertsonen osasuna eta ingurumena babesteko asmoz.

JUSTIFIKAZIOA

Amiantoa, Asbesto izenez ere ezaguna, minbizi-eragilea da. Mineral haritsu hori 60, 70 eta 80ko hamarkadetan erabili zen labe eta berogailuen isolatzaile eta fibrozementuaren osagai gisa, xaflak (uralita izenez ezagunak), hodiak, bakelita, balazta-zapatak, junturak eta abar egiteko. Pertsonak zein animaliek bere hautsa -lehen begiratuan ikusten ez diren zuntzez osatua- arnastu dezakete, 15 edo 30 urte pasatuta osasunerako kalte larriak eraginez. Esaterako, mota askotako minbiziak biriketetan, urdailean, pleuran eta peritoneoan. Amiantoaren eraginpean egondako pertsonen artean biriketako minbizia biztanleriak oro har jasaten duena baino 7 aldiz ohikoagoa da, eta 12 bider handiagoa gaixotasuna jasaten duten pertsonak erretzaileak baldin badira. Beste minbizi mota bat, Mesotelioma pleurala izenekoa, kasuen %85ean zuntzaren eraginpean egotearen ondoriozkoa da, eta kalkulatu dago Espainiar Estatuan arrazoi horrengatik hiltzen diren pertsonak urtean mila inguru direla. Aritu batzuen arabera, datozen 30 urteetan EBan 500.000 heriotza izango dira, eta 10.000

Euskadin, zuntz minbizi-sortzaile horren eraginpean egoteagatik. Arrazoi hori dela eta, 2005ean Europar Batasunak estatu guztietan amiantoa erabiltzea debekatu zuen.

Substantzia eta prestakin arriskutsuen inguruko 2001eko abenduaren 7ko Ministro-aginduak debekatu zuen 2002tik aurrera amiantoa duten produktuak erabili, sortu eta merkaturatzea. Debeku horrek arrisku iturri handia ekiditen du ekoizpenean, baina, tamalez, amiantoa ez da gure bizitzetatik desagertu; izan ere, zuntz minbizi-sortzailearen milaka tona daude instalatuta berogailuetan, ur hodietan, eraikinetan, industria eta abere instalazioen teilatuetan,... Derrigorrezko prebentzio neurriak bete arren, eraikinak bota, hodiak konpondu, berogailuak aldatu eta abarretarako egin beharreko lanak oso arriskutsuak dira, eta, hori dela eta, lan horiek enpresa espezializatu eta behar bezala egiaztatuek gauzatzen dituzte, handia baita inplikaturako langileek nahiz inguruan bizi diren pertsonen kutsatzeko duten arriskua. Prebentzio neurri horiek bete ez diren kasuetan kopuru handiko isunak jarri izan dira, baita 6 hileko kartzela zigorrak ere.

Inbentariarik egin ezean, litekeena da mota horretako jarduera asko egiterakoan langileek amiantoaren eraginpean daudela ez jakitea, edo amiantoaren presentzia ezkututzen dela langileak eta herritarrak oharkabean amiantoaren eraginpean egotera behartuta eta horiei ondorio larriak erakarrit. Hori guztia prebentzio neurriak ez hartzeagatik edo eraginpean dauden langileen osasun-zaintza egokia ez eskaintzeagatik. Arazoa are larriagoa da hondakin arriskutsuen kudeaketa desegokia gaineratzen badiogu.

Hori dela eta, gure ustez oso garrantzitsua da udalerrian instalaturako amiantoaren inbentarioa egitea, beti ere berori kentzeko lanak egiterakoan langileak babestu eta hondakin

minbizi-eragileak behar bezala kudeatuko direla bermatuz. Hori guztiagatik, ondorengo mozioa onar dadin proposatzen dugu

M O Z I O A

Errenteriako Udalak ondorengo konpromisoa hartu du:

1.- Udal instalazioetan eta Udalerriko eraikin, teilatu, ur-sare, industria edo abere-pabiloietan dagoen amiantoaren inbentarioa egitea, lokalizazio eta identifikazio plana egin ondoren (bizilagunekin elkarlanean), eta zuntzaren egoeraren diagnostikoa eginda, beharrezkoa izanez gero, kentzea. Plan horrekin batera informazio kanpaina egingo da udal langile, azpikontrata eta herritarrei zuzendua. Udalak hondakinen bilketaren planifikazioa prestatuko du, kontrolik gabeko isurketak ekiditeko. Inbentario hori Hirigintza Sailak eramango du kontrola edo fitxeroak eginez, bertan jasoko delarik amiantoa duten instalakuntza-zerrenda oro. Instalakuntza horien berri udal langileek, bizilagunek, partikularrek, elkarteek, etab... eman ahal izango dute. Era berean, eraikin edo antzekoren bat jaustea eskatzen denean inbentarioa begiratuko da, hain zuzen, egin beharreko lan hori inbentarioan jasota ote dagoen ikusteko, eta hala bada, material mota hauek maneiatzeko eskatzen diren neurriak hartzea exijituko da

2.- Prebentzio Zerbitzuari eta OSALAN Laneko Osasun Institutuari helaraztea Udalerako lanean aritu diren bitartean amiantoa manipulatzegatik kalterik izateko arriskupean egon diren lan-plantilako nahiz azpikontratetan aritutako langileen zerrenda, horien osasuna behar bezala zaintzen dela bermatu ahal izateko.

3.- Amiantoa duten instalazioen mantentze eta konpontze-lanak indarrean dagoen araudiari jarraiki egingo dira.

4.- Udaltzaingoak jarraipena egingo du amiantoa kentzeko ezkutuko jarduerak edo hondakinen kontrolik gabeko isurketak antzemateko.

7. Galderak eta eskariak.

* Angulo jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) galdera egin baino lehen Udalbatzari gogorazi nahi dio pasa den maiatzean Udalean euskara erabiltzeko irizpideak onartu zirela. Duela hil zenbait Eusko Jaurlaritzako Elebidera kexa bat bidali zuten Hiri Mantenimenduko arduradunak 3. hizkuntza eskakizuna duela ezarria 2008an, baina behin behinekoz betetzen ari den langileak ez duela betetzen hizkuntza eskakizun hori. Eta Elebidetik abenduaren 15ean esan diete Udalari horren berri emateko eskatuz hiru aldiz bidali diola gutuna: irailaren 10ean, urriaren 18an eta azaroaren 15ean eta oraindik ez dutela jaso Errenteriako Udalaren erantzunik. Orduan, jakin nahi dute Eusko Jaurlaritzaren barruan dagoen Elebide zerbitzu honek Udalari galdera bat egiten badio, zergatik ez den erantzuten.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du berari jakinarazi diotenaren arabera, idatzi hori Langileria Sailera bidali ondoren, jada erantzun diote.

* Angulo jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) jakin nahi du noiz erantzun den.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du Langileria Sailera zuzentzeko.

* Cano andreak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du duela hil zenbait aitatu zutela zenbait batzorde-bilera ez zirela egiten eta Alkateari proposatu zioten aurrerantzean ohiko batzorde-bilerak egiteko. Eurek ulertu zutenaren arabera proposamen hari baietza eman zitzaion, baino ikusi dute hil honetan bertan batzorde-bilera erdiak inguru bakarrik deitu direla. Oraintxe ikusi duten gaia esan da Hirigintza eta Ingurumen batzordean landu zitekeela, baina justu horiek, beste batzuek bezala, ez dira deitu. Orduan, jakin nahi dute ea Alkateak zein iritzi duen, aurrerantzean batzorde-bilerak deitzeko asmorik duen, edo zer erabaki duen gai horren inguruan.

* Merino alkate janak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du, amiantoari dagokionez, aurreko eztabaidan beste batzorde batera eraman zitekeela aitatu dela, baina Lehendakaritza batzordera eraman zen eta han ikusi zuten. Bere iritziz, garrantzitsuena da gaia ikusi zela, ez dio axola batean edo bestean izan. Gainontzeko batzordeei dagokionez, berriz, esan du ez dituela Alkateak deitzen, ordezkariak baizik, eta beraz, batzordeburu bakoitzari eskatu beharko zaizkio azalpenak. Berak ez daki deitzen diren edo ez, dakiena da azkeneko Hirigintza batzordean bi egoera eman zirela: bat, teknikaria oporretan zegoela, eta bi, -are garrantzitsuagoa eta eraginkorragoa- ez zegoela batzordean ikusteko gairik.

* Murua jaunak (Atxiki Gabeko Zinegotziak) esan du Pasaiako Azpiegituren Plan Zuzentzailearen berri prentsaren bidez izan dute, eta denek badakite Errenteria Pasaiako kaiaren parte dela. Horregatik, gustatuko litzaieke jakitea

dokumentu hori zein fasetan dagoen eta Udalak zein urrats eman dituen Plan horren inguruan.

* Merino alkate janak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du Errenteriako Udalari ez diotela ezer bidali. Hortaz, ez du ezer egin, ezta ikusi ere, esan du.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:30 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiatzatzen dut.